

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1010 - Kultura Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - Ondare Historiko Artistikoa eta Artxiboak
Funtzionala: 336 - Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen zehatua:

Gizarte gipuzkoarrean, kulturaren praktikaren alorreko emakume eragileen presentzia eta ikusgarritasuna handitu eta indartzea

Kuantifikazioa: 287,50 (% 0,01)

Ordainketa kredituak: 287,50 (% 0,01)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).	Ea.9.2.1. Ekintza positiboko neurriak abiaraztea emakumeen parte hartzea eta erabaki hartzeak emendatzeko nola jai guneetan hala arte, literatura eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1010 - Kultura Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Gordailua eta Museoak
Funtzionala: 333 - Kultur ekipamenduak eta museoak

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen zehatua:

Partehartzean berdintasuna bultzateko ekintzak proposatuko dira museoetan. Gordailuan egiten diren pertsonen kontratu txikien gehiengo handi bat emakumezkoena da zeren eta zaharberritzaileen lanbidea oso feminizatua baitago.

Kuantifikazioa: 63.590,62 (% 1,32)
Ordainketa kredituak: 62.733,28 (% 1,35)
Datozen urteetako gastuak: 857,34 (% 0,56)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).	Ea.9.2.1. Ekintza positiboko neurriak abiaraztea emakumeen parte hartzea eta erabaki hartzeak emendatzeko nola jai guneetan hala arte, literatura eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1010 - Kultura Zuzendaritza Nagusia
Programa: 120 - Liburutegia, kulturaren sustapena eta hedapena
Funtzionala: 334 - Kulturaren sustapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Datu-bilketa hobetzeko beharra antzematen da, genero-arrakalak detektatzeko eta horiek ezabatzean aktiboki eragiteko, batez ere programazioaren eta beken eta dirulaguntzen arloetan.

Kuantifikazioa: 67.603,55 (% 0,37)

Ordainketa kredituak: 67.603,55 (% 0,41)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundeetan sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Gipuzkoako Arteen eta Kulturaren Kontseilutik lanean	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1020 - Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Nazioarteko Lankidetzak
Funtzionala: 327 - Herritarren bizikidetzak sustatzea

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen zehatua:

Genero-ekitatearen defendatzea eta sustatzea ekonomiaren, gizartearen edo politikaren alorretan.

Kuantifikazioa: 1.746.575,08 (% 25,69)
Ordainketa kredituak: 1.405.610,08 (% 27,59)
Datozen urteetako gastuak: 340.965,00 (% 20,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatzea, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 100,00)	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundeetan sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeko.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1030 - Gazteria Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Haur, nerabe eta gazteen sustapena
Funtzionala: 232 - Gizarte sustapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Haurrak eta nerabeak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Etxeko ingurunea segurua eta egokia izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Hautzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa, definizioz, balioen eta aginduen esperimentazioaren eta barneratzearen bidezko ikaskuntzak ezaugarritzen dituen bizitzako etapak dira, baita generoarenak ere.

Bestalde, jakina da komunikabideek, publizitateak, ingurune digitalak eta, oro har, kontsumo-gizarteak eragin handia dutela haiengan; izan ere, kontsumo-gizarteak kontuan hartzen ditu, kontsumitzaile potentzial gisa, eta, horretarako, sarritan, beren helburuetarako balio duen edozein estrategia erabiltzen du, bestelako kontsideraziorik gabe.

Beraz, ezinbestekoa da eragin toxiko hori nolabait konpentsatuko duten inguruneak eta erreferentziak sortzea, eta, ahal den neurrian, balio eta ikuspegi sexistak eta berdintasunezkoak ez direnak kudeatzen ikastea; izan ere, denborarekin, balio eta ikuspegi horiek desegokiak ez diren egoeretan hondatzen dira eta gizarteko egiturazko desberdintasuna iraunarazten dute.

Gure zuzendaritzarentzat, lan hori modu bikoitzean egin behar da: esplizituki, berdintasunaren aldeko ekintza eta jarrera esplizituen bidez, eta baita ere genero-ikuspegia zeharka txertatu behar da gure ekintza osoan.

Kuantifikazioa: 641.146,84 (% 9,20)

Ordainketa kredituak: 641.146,84 (% 9,20)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	(% 100,00)	
Ek.HO.10.2. Bizitzaren esparru guztietan emakumei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.	Ek.10.2.1.Haur eta gazteentzako foru zerbitzuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eduki eta jarduerak sartzea.	(% 100,00)	
Ea.HO.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren strategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	Ea.8.2.4. Neska nerabeen ahalduntzea sustatzea GFak sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako programen eta guneen esparruan.	(% 100,00)	



Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik."	V.14.2.3. Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria matxista prebenitzeko eta detektatzeko tresnak sortzea, bai espazio komunetan, bai espazio espezifikoenetan, hala nola kirol- eta aisialdi-espazioetan.	(% 100,00)	
I.HO.16.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrokatzea.	I.16.1.3. GFAk eta toki erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko moduak koordinatzeko partekatzen dituzten guneak sendotzea.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala:	1040 - Kirol Zuzendaritza Nagusia
Programa:	400 - Kirolaren sustapena
Funtzionala:	341 - Kirolaren sustapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

2023an, Gipuzkoako soziometroak helduen datuetan erakusten duenez, Gipuzkoako emakumeek zertxobait gora egin dute ariketa fisikoaren edota jarduera fisikoaren praktika erregularrean (ehuneko 2 hamarren). Gizonen eta emakumeen arteko aldea ehuneko 7,2 puntukoa da. Emakumeok Mugimenduan kanpainaren mezua berri izan duten biztanleen ehunekoa Gipuzkoako emakumeen % 14,3 da. Ekimenaren eraginagatik jarduera fisikoa handitu duten emakumeen ehunekoa inkestatutako biztanleriaren % 1,3 da, hau da, Gipuzkoako 2.414 emakume heldu. 2023an, 30 Emakumeok Mugimenduan jarduera egin dira zuzenean, eta 27 ekitaldi babestu dira. 700 emakume inguruk parte hartu dute zuzenean jarduera horietan. 2023an, app-ak bultzada nabarmena izan du, 130 erabiltzaile izatetik 750 izatera igaro baita. 2021ean 2.866 pertsona artatu ziren Kirol Orientazioko Zerbitzuen bidez, eta horietatik % 62 emakumeak izan ziren.

Eskola adineko kirolari dagokionez, ikastetxeetako jardueretan, igoera horrek eraginda da genero aldea 4 puntu murriztu dela Jolashezi programan, eta 7 puntu Multikirolan. Klubek eskoletan duten parte hartzeak gorakada handia izan du, eta futbol modalitatea nabarmendu behar da; izan ere, pandemia aurreko datuekin alderatuta, neskek % 60 egin dute gora. Gipuzkoako neskek mutilek baino jarduera fisiko intentso eta moderatuaren maila txikiagoa dute, eta gutxiago dira OMEk gomendatutako mailara iristen direnak (Kirol Ohitu azterlana). Horri dagokionez, generoen arteko aldea ehuneko 11 puntukoa da. Alde handia ikusten da ikastetxeek eskainitako jardueretan parte hartzeari dagokionez: genero aldea ehuneko 22 puntukoa da.

Eremu federatuari dagokionez, egiaztatu da 2023an 9 federazio berdintasun plana zutela, eta 5 federazio gehiago garatzen ari dela. Gipuzkoako 45 federazioetatik 13k dute orain emakumeek okupatutako lehendakaritza, % 29k. Kirol klubei dagokionez, aztertutako 85 klubetatik 15etan emakumeak dira buru; beraz, kasu honetan aldea ehuneko 60 puntukoa da. Klub horien zuzendaritza batzordeetako ordezkariak dagokionez, kideen % 29 emakumeak dira, eta horrek % 42ko genero arrakala dakar.

2021/22 denboraldiko federazio lizentziei dagokionez, Gipuzkoan emandako lizentzia federatuen % 25 emakumeenak izan ziren. Adierazle horretan, generoen arteko aldea 42 ehuneko puntukoa da. Pandemia aurreko denboraldian baino 1427 lizentzia gehiago (+ % 8) eman dira emakume kirolarientzat, eta aurreko denboraldian baino 403 gutxiago (- % 2). Federazio lizentzia duten teknikariek dagozkien lizentziei buruzko datuak aztertuta, pandemia aurreko egoerari dagokionez teknikarien heren bat baino gehiago galdu dela ikusi da. Generoen arteko aldea ehuneko 86 puntukoa da. Epaileri emandako lizentziek, ordea, pandemiaren aurreko mailak berreskuratu dituzte. Nolanahi ere, genero aldea ere garrantzitsua da: 70 puntu portzentual.

2023an, Kirolgi Fundazioak 1.669.460 euroko laguntzak eman dizkie emakumez osatutako elite taldeei, hau da, taldeei emandako laguntza guztien % 55,44. Bestalde, eliteko emakume kirolariei emandako beken zenbatekoa 234.435,5 €-ra iritsi da, hau da, emandako laguntza guztien % 48,5era. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzen bidez kirol federazioei 2022ko ekitaldian banatutako laguntzen artean, emakumeentzako jardueretarako emandako laguntzen zenbatespena 706.833 eurokoa da, hau da, guztizkoaren % 28. Klubei emandako laguntzetan, % 34 da.

Kuantifikazioa:	1.696.157,58	(% 4,61)
Ordainketa kredituak:	1.546.157,58	(% 8,48)
Datozen urteetako gastuak:	150.000,00	(% 0,81)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 100,00)	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeari.	(% 100,00)	
Ek.HO.13.1. Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.	Ek.13.1.1. Kultur eta aisialdiko programazio eta jardueretan zaintza lanen erantzukidetasunarekin eta bizitzari eta gizarteari eusteko duen garrantziarekin lotutako edukiak sartzeari, eta zaintzaileen esku beren parte hartzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eta baliabideak jartzeari.	(% 100,00)	
Ea.HO.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren estrategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	Ea.8.2.1. GFAk kirol federazioei eta klubei kirol esparru guztietan eta lehiaketa maila guztietan emakumeek eta neskek parte hartzeagatik emandako dirulaguntzen eraginaren azterketa egitea.	(% 50,00)	
	Ea.8.2.2. Kirol klubetan eta federazioetan parte hartzen duten emakumeentzako ahalduntze esperientzia pilotu bat garatzea.	(% 100,00)	
	Ea.8.2.6. Emakumeek jarduera fisikoan parte har dezaten bultzatzea, adin guztietan.	(% 50,00)	
Ea.HO.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).	Ea.9.2.2. Emakume eta neskez osatutako kirol taldeen aitortza soziala sustatzea.	(% 50,00)	
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkari eta/edo postu publikoetan.	Ea.9.3.1. GFaren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	(% 50,00)	
	Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	(% 30,00)	



Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik."	V.14.2.3. Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria matxista prebenitzeko eta detektatzeko tresnak sortzea, bai espazio komunetan, bai espazio espezifikoenetan, hala nola kirol- eta aisialdi-espazioetan.	(% 50,00)	
I.HO.14.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.	I.14.3.5. Kirol munduan emakumeen eta nesken aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horretan sentsibilizatzeko ekintzak abiaraztea.	(% 100,00)	